



BIZKAIKO ELIKAGAIEN BANKUA

Gizarte saila

ERAKUNDE HARTZAILEA BEZALA IZENA EMATEKO PROZESUA

1º Talde behardunei elikagaiak banatu nahi dieten erakundeek Bizkaiko Elikagaien Bankuko Gizarte Sailarekin jarriko dira harremanetan mezu elektronikoaren bidez social@bancali-biz.org edo telefonoz 944499258- 222, honako datuak eskainiz:

- Erakundearen izena
- Helbidea, elektronikoa bada hobe.
- Pertsona bitartekaria (izen-deiturak eta telefonoa)
- Legez eraturako erakundea delaren frogagiria, Estatutuak eta erakundeak eskura dituen diru sarreren dokumentua.

2º Elkarrizketa visita-ebaluazio taldearekin (GSBT).

Eskakizun idatzia jaso eta gero, Bisita Taldearekin elkarrizketa bat hitzartzen da erakundearen ordezkariekin, erakundearen egoitzan.

Beharrezko dokumentuak eskatuko ditu Bizkaiko Elikagaien Bankua--ak erakundeari, Bankuak honen izena ematea onar dezan. Dokumentuak honako hauek dira:

- Erakundearen Estatutuen kopia.
- Urtero egiten den txostenaren kopia.
- Urteko ekonomiaren txostena.
- IFZ-ren fotokopia.
- Kontsumo erakundeetan (Behardunentzako jantokiak, eskola-jantokiak, kanpamentuak, etab.), gutxi gorabeherazko pertsonen kopurua.
- Familiei zuzendutako erakundeetan, gutxi gorabeherazko pertsonen kopurua, honako taldeetan banatuta: helduak, 2-16 urteko adingabeak eta bularreko umeak (2 urte arte), eta familia bakoitzeko zenbat kide dauden.
- Banaketa eremua (auzoa, herria, elkartea, gurtza-lekuak, etab.).

Bizkaiko Elikagaien Bankua-eko taldeak erakundeari Bankuaren funtzionamendua azalduko dio: erabilera, ekarpen motak, aurkeztu beharreko dokumentuak eta Bankuaren programak.



BIZKAIKO ELIKAGAIEN BANKUA

Gizarte saila

3º Onarpena eta erakunde hartzaile bezala alta hartu.

Gizarte sailak txostena idatzi eta gero Zuzendaritza Batzarrari helaraziko zaio Erakundea onartu edo ukatu dezan.

Onartua izatekotan, Erakundeak elikagaiak ateratzeko prozesuaren informazioa jasoko du eta bi elkarteen artean hitzarmena sinatuko da. Elikagaiak hurrengo banaketan banatuko ditu Erakunde Hartzaileak, eta sei hilabetez froga-epean egongo da.

4º Erakunde hartzailearen iraunaldia.

Erakunde Hartzaileak behin-behinekoak edo iraunkorrak izan daitezke.

Bere prozedurengatik, konpromezuak bete gabe uzteagatik, banaketa kaltegarriagatik edota onuradunen duintasuna erasotzeagatik, egoitzen erabilera okerragatik edo beste egoera larrirengatik hitzarmena eten daiteke, aldez aurretik egoerari oinarri eman dizkion zergatiak aztertu eta gero.